

AURKIBIDEA

Abendualdiko kandelak pizteko lagungarria	4
Azaroaren 30ean, ABENDUALDIKO I. IGANDEA	7
Abenduaren 7an, ABENDUALDIKO II. IGANDEA.....	16
Abenduaren 8an, MARIA BIRJINAREN SORTZE GARBIA	24
Abenduaren 14an, ABENDUALDIKO III. IGANDEA.....	33
Abenduaren 21ean, ABENDUALDIKO IV. IGANDEA.....	41

Kantua: «ABENDUAREN KANDELAK»

Doinua: Etxahun Iruri / Hitzak: Unai Manterola Albizu

0. A - ben - du - a - ren kan - de - lak

ar - gi e - gin - go di - gu, gi - za - di - a ez da - din

i - zan i - lu - na - ren ga - ti - bu.


Bi - zi be - rri - a er - ne - tzen do - a, frui -

tu E - gu - be - rri - du. En - bor za - ha - rra ger - ta -

tzen da bi - zi - a - ren tes - ti - gu.

1. Abenduko lehen argian / Itun Zaharra da giltza,
antzinatik iragartzen du / Salbamenaren Hitza.
Profeta zaharren itxaropenez / barne-pozez gabiltza,
zori pozgarria dakigun / Erreinuko bizitza.

2. Argi honek indarra du / sugarraren oihartzun,
Bataiatzailea mintzo da: / "Datorrenari entzun".
Salbatzailea gertatzen zaigu / promesaren erantzun,
bide prestatzea lokarri / ta bakea eratzun.
3. Hiru kandlek digute / barne-gogoa poztu,
Andre Mariak erraieran / Jesu Kristo du sortu.
/hintza bezala, gozotasunez, / Jainkoa zaigu lotu,
gure barnean salbamena / badaiteke ehotu.
4. Laugarrengo su-argia / bizigarri ez al da?,
igo dugu dagoeneko / Abenduaren malda.
Maitasun eta itxaropenez / munduaren eztanda...
Dena berri gerta daiteke / garen oro emanda.



ABENDUKO KANDELAK PIZTEA

Aurreko orrialdean dator kantu bat, Abenduko kandelak piztean kanta daitekeena. 1. igandean, agurraren eta oharpenaren ondoren «0» bertsoa kanta daiteke, ondoren koroaren bedeinkapena egin, eta lehenengo kandela piztean «1» bertsoa. Beste igandeetan, igandeari dagokion bertsoa bakarrik.

Hona, lehenengo igandean bedeinkapena egiteko otoitza:

Astero, Abenduko kandelak piztean Eguberriaren argia jasotzeko prestatzen ari garela adieraziko dugu. Gaur, bedeinkapen otoitza egitera goaz aurreneko argia pizterako.

(Apaizak edota diakonoak besoak zabalik egingo dute otoitza; Hitzaren ospakizunean laikoak egin dezake otoitza, besoak zabaldu gabe).

Egin dezagun otoitz.

Jauna, egun hauetan lurra alaitzen da
eta Eliza pozez betetzen,
ilunpetan, ezjakinean, atsekabeen
eta bekatuan dauden gizakiengana baitator
argi amaigabea den zure Semea.

Jesus datorrela jakiteak sortu dion itxaropenez
koroa hau (enbor hau) prestatu du zure herriak
eta kandelaz apaindu.

Zure Semearen etorrerarako prestaera-garaia hastean
eskatzen dizugu, Jauna,
bere distira argi berriz areagotuz doan bezala,
gu ere argi gaitzazula munduaren argia den
eta ilunpe guztiak argitzen dituen Jesusen argiarekin
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Azaroaren 30ean
ABENDUALDIKO I. IGANDEA (A)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Liturgi urte berri bat hasten dugu gaur, eta Kristorengandik datorkigun salbazioaren misterioa ospatzen dugu modu desberdinetan. Abendu, Eguberri eta Agerkunde aldiarekin hasten da, Maria Birjinaren erraietan Espiritu Santuaren egitez Jainkoaren Semea jaio eta agertu zeneko oroigarria.

Gaur hasiko ditugu Abendualdiko lau asteak: itxaropen pozgarriaren aldia, Kristo Salbatzailea gure izate apalean agertuko zelako, eta aintzaz itzuliko delako.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Hitzaren eta Eukaristiaren mahaira gonbidatu gaituen Jaunak, aldi honetan bere etorreraren zain gaudela, gure bihotzak prestatu eta esna egoteko eskatzen digu. Bekatari garela aitortuz, eska diezaiogun apalki errukia.

—Jesus Jauna, mundura gu salbattzera etorria: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaren graziaz etengabe geurerekin zaituguna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure egintzak epaitzera egun batean etorriko zarena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
emaguzu zeure fededunoi Abendualdia hastean,
gugana datorren Kristoren bidera
egintza onez beterik ateratzeko gogoia,
azken egunean bera aintzaz etortzean,
haren eskuinaldean jarririk,
zeruko erreinua irits dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Abendualdia bihotz-berritze garaia da, jarrera baikor eta alaiz erne egoteko garaia. Ez da beldur kontua, desira kontua baizik: badator Jauna, eta gure bizitzak zabalik egon behar du Bera onartu eta beraren erreinura gerturatzeko.

Lehenengo irakurgaia (*Is 2, 1-5*)

Isaias Profetaren liburutik

Isaiasek, Amosen semeak, Judaz eta Jerusalemez izandako ikuskaria:
Azken egunetan, Jaunaren etxea dagoen mendia beste mendiak
baino gorago ezarriko du Jaunak, beste mendixkak baino gorago;
hara joko dute nazio guztiek eta herri asko joango da bertara, esanez:


«Zatozte, igo gaitezen Jaunaren mendira, Jakoben Jainkoaren
etxera; berak erakutsiko dizkigu bere bideak, eta gu haren

bidezidorretan ibiliko gara; Siondik aterako baita legea eta Jerusalemdik Jaunaren hitza».

Berak epaituko ditu nazioak, auzira ekarriko herri guztiak. Golde bihurtuko dituzte ezpatak eta igitai lantzak. Ez du herrik herriren aurka ezpatarik jasoko, ez dira gudurako berriz trebatuko.

Zatoz, Jakobena herri, gabiltzan Jaunaren argitan.

Erantzun-salmoa (Sal 122 [121], 1-2. 4-5. 6-7. 8-9)



- ℣. Hura poza nirea, esan zidatenean:
«Goazen Jaunaren etxera!»
Hona orain nire oinak
zure ateetan, Jerusalem. ℟.
- ℣. Hara igotzen dira leinuak, Jaunaren leinuak,
Israelen lege denez, Jaunaren izena gorestera.
Han daude ezarriak auzi-mahaiak,
Davidena jauregiko mahaiak. ℟.
- ℣. Eskatu bakea Jerusalementzat,
bizi bitez lasai maite zaituztenak.
Izan bedi bakea zure harresien barruan,
lasaitasuna zure jauregietan. ℟.



℣. Neure senide eta lagunen izenean ere,
hau diot: «Bakea zurekin!»
Jaunaren, gure Jainkoaren, etxeagatik,
zoriona eskatzen dut zuretzat. ℟.

Bigarren irakurgaia (*Erm 13, 11-14*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Ohar zaitezte zein garaitan bizi zareten. Izan ere, ordua da lotatik esnatzeko, sinesten hasiberri hartan baino hurbilago baitugu orain geure salbamena.

Badoa gaua, gainean dugu eguna; ken ditzagun, beraz, ilunpetako egintzak eta jantzi argitako armak. Gabiltzan jator, egun-argiz bezala: ez jan-edankieran eta hordikerian, ez lohikerian eta neurrigabekerian, ez haserre eta norgehiagokerian. Hartzazue Jesu Kristo Jauna soineko.

Aleluia (*Sal 85 [84], 8*)



A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.



℣. Erakutsi guri, Jauna, zeure maitasuna,
eman zeure salbamena. ℟.

Ebanjelioa (*Mt 24, 37-44*)

Homiliarako argibideak

0. Erne eta prest

- Erritmo aldaketa datorkigu Abendualdia hasten dugunean. Kolorea aldatu dugu, berdea denbora batez utzi eta more kolorea izango da datozen lau asteotan Eguberria, Jaunaren Pazkoa ospatu arte.
- Liturgiak eskaintzen dizkigun irakurgaiek bihotz berritzeko aldarria egiten digu, Jaunaren berriro gure etxeko atera deika izango dugula eta honetarako erne eta prest egon behar dugula. Ez al da, norbaitek galdetu diezaguke, bihotz berritzearen deia Garizumako deiadarra? Ba, ez! Gaur bihar baino hobeto, ez utzi biharko Jaunaren bisitaren prestaketa, barne aldaketa, bihotz berritzea.
- Ziurrenik guk Abendualdia, Eguberriaren prestaketarako denboraldi patxadatsua hasi baino lehen, kaleko argiak piztu dituzte eta kontsumoaren makina jarri da martxan. Dendak, merkataritza-guneak atondu badituzte goitik behera, kaleak eta erakusleihoak dirdai jarri badizkigute, ez al dugu gure barnea, gure oinarritzko izaera prestatzeko denborarik hartuko?
- Hauxe da Abendualdiko lehen igandeko gonbidapena. Garai hauek dakarkiguten zeinuak ikusi, sentitu eta hausnartzeko denbora aproposa, Jainkoa gure artera datorrela ospakizuna prestatzen hasteko denboraldi liturgiko, espiritual eta pastoral.

1. Itxaropena eraginez

- Erne egotea ez da kristauontzat nire bizilagunak bizitza nola antolatu eta eraman behar duen garaia izan behar. Ez da besteen egunerokoa antolatzeko saiakera bat, gure barnea berrantolatu eta txukuntzeko garaia. Zenbaitetan fededunok besteen bizitza antolatzeko afizioa izaten dugu gure etxeko gela hankaz gora dugunean.

- Erne egotea etorkizuna, datorrena eta garena esperantzaz bizitzea da. Itxaropenak, Jaunagan jartzen dugun esperantzak bakarrik eman diezaguke eguneroko saltsa eta buruhausteetatik ateratzeko sosegua.
- Eguno gizartearen ezaugarri tristea da atzera-aurrera gabiltzala zenbaitetan nora goazen jakin gabe. Itota bizi gara eta toki guztietara ezin iritsiz, ez dugu bizitza behar den bezala gozatzen.
- Itxaropena bizi-programa bat da, erronka eta eguneroko eginkizuna. Itxaropenak ez du zertan kontuak atera beharrik, “gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea”. Halakoa da Jaunaren etorreraren ezustekoa, betirako datorkigun bisita honek etxea eta bihotza fundamentuz prestatuta izatea eskatzen duela.
- Bai ondo erakutsi digutela gure amek etxeko despentsa beti prest egon behar dela edonor bisitan etortzen bada! Amak erakutsitakoa ondo ikasi ote dugun jakiteko ezusteko bisita bat etortzean martxan jartzen da prest ote geunden. Edo ez.

2. Inoiz ez da berandu

- Lau aste Jaunaren etorrera prestatzeko. Lau aste Eguberriak barnetik lantzen hasteko. Norbaitek arrazoiez esan dezake denbora gutxi dela. Eta ez zaio arrazoirik faltako!
- Baina dator, badator, etengabe datorkigu gure artera. Inoiz ez da berandu azaleko gauzak alde batera utzi eta datorrenak dakarkigun oparia bete-betea hartzeko.
- Ez da inoiz berandu fedearen dohaina jaso eta barneratzeko. Fedea ez da gure bizitzan behin bakarrik pasatzen den bultzia. Arinkeriak alde batera utzi eta Gizonaren Semea datorrenean aurki gaitzala erne, adi eta gure etxea betirako datorren bisitaren onartzeko prest.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egia gun otoitz Jaunari, eta eska diezaigun uste osoz salbamena:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



- Kristau herriak, erne bizirik, gertu duen salbamena pozik onar dezan. Egigun otoitz. ✠.
- Munduan bakea nagusitu dadin eta izadiaren aberastasunak gizaki guztientzat aurrerabide eta ongizate bilakatu daitezen. Egigun otoitz. ✠.
- Gaixotasuna nahiz barrengo sufrimendua nozitzen dutenek aurki dezatela gudan Jaunak bere etorrerarekin guztiontzat dakarren bakea. Egigun otoitz. ✠.
- Hemen gauden guztiok arretaz bizi gaitezela beti, ezerk ez gaitzan urundu Jaunaren zain egotetik. Egigun otoitz. ✠.

Jaungoiko Aita ahalguztidun eta betierekoa, gizaldietan zehar leial dirauzu Zure agintzarietan; entzun Zeure herriaren otoitzak eta zabal itzazu itzaropenera Zure fededunen bihotzak, Jesus, gure Salbatzailea bere santuekin etortzean, tinko iraun dezagun bere aurrean. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna,
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;
egizu, ogi-ardo hauekin
oraingo bizitzaldian ospatzen dugun Eukaristia
zure erospenaren betiereko sari gerta dakigula.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 3. (*Meza-liburua: 470. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

On egin diezagula, Jauna,
orain ospatu dugun sakramentu honek;
eta egizu,
mundu honetako gauza iheskorren artean erromes gabiltzanok
zeruko ondasunak maita ditzagula
eta horietan jar dezagula geure bihotza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *Rx*. Eta zure espirituarekin.
Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.
(*Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:*)

Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue
eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:
Jainko ahalguztidun errukitsuak,
haren etorreraren argiaz,
santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenaz bete. *Rx*. Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak
fedean sendo,
itxaropenean alai
eta maitasunean eginkor. $\mathcal{R}$.Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz
pozten zaretenoi,
gero, berriro aintzaz etorriko denean,
eman diezazuela betiereko biziaren saria. $\mathcal{R}$.Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, $\mathcal{X}$ eta Espiritu Santuak. $\mathcal{R}$.Amen.
Zoazte Jaunaren bakean. $\mathcal{R}$.Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 7an
ABENDUALDIKO II. IGANDEA (A)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abenduko bigarren igande honetan, Mesiasen etorrera iragarri zuen Itun Zaharreko profeta handiak, Isaiasek, herriak salbatzera datorren Jaunari begiratzera gonbidatzen gaitu; gure bihotzaren alaitasunean bere ahots aintzatsua entzunaraziko digu Jaunak. [Esperantza gozo honekin Abenduko koroaren bigarren kandela pizten dugu].

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Abendualdian Jaunaren etorrera gogoratzen dugu, eta haren etorrera berria prestatzera egiten zaigu dei. Presta dezagun geure bihotza Jaunari ongietorria egin ahal izateko.

—Jesus Jauna, gure bekatu guztien barkamen-**iturria** zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztiok bihotz berritu gait**te**zen nahi duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Espiritu Santuaz bata**iatu** gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠ Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna eta errukitsua,
 lur honetako gauzen ardura ez dezagula eragozpen izan
 zure Semeari bidera gogotsu irteteko;
 eta eraman gaitzazu, jainkozko jakinduriaren irakaspenez,
 zeure Semearekin bat egitera.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Abendualdia ekintzarako garaia da, ez bakarrik egonez itxarotekoa. Jainkoa badator, eta gure bizitzak eta historia eraldatzeko dator. Prest egon gaitezen bere presentzia onartzeko eta bihotza aldatzeko; apaltasunez eta itxaropenez, mundua berritzera datorren Mesias hartzeko.

Lehenengo irakurgaia (Is 11, 1-10)

Isaias Profetaren liburutik

Egun hartan, kimu bat sortuko da Jeseren zuhaitz-hondotik, muskil bat erneko haren sustraitik. Haren gainean Jaunaren espiritua kokatuko da: jakinduria- eta adimen-espiritua, kontseilu- eta sendotasun-espiritua, ezaguera- eta Jaunaganako begirune-espiritua. Jaunaganako begirunea izango du pozbide.

Ez du auzia itxuraz bakarrik erabakiko, ezta epaituko ere entzuten duenaz. Zuzen erabakiko du behartsuaren auzia eta zuzenbidez epaituko herriko apalak. Bere ahoko zigorraz joko ditu gogorrak, bere ezpainetako arnasaz hilko gaizkileak. Zuzentasunak eta leialtasunak inguratuko dute, gerrikoak gerria bezala.

Otsoa bildotsarekin biziko da, lehoinabarra antxumearekin etzango, txekorra eta lehoikumea elkarrekin larratuko dira, eta haurtxo bat izango dute artzain.

Behia eta hartza batean larratuko dira, haien umeak elkarrekin etzango; lehoiak lastoa jango du, idiak bezala. Bularreko haurra suge-zulo gainean jostatuko da, eta bularra utzi berriak suge gorriaren zuloan sartuko du bere eskua. Nire mendi santu osoan ez du inork kalterik, ez hondamenik egingo, Jaunaren ezagueraz beteko baita lurraldea, itsasoa urez betea dagoen bezala. Egun hartan, Jeseren sustraiko muskila herrien banderatzat altxatuko dute; herriak haren bila etorriko dira, eta ospetsua izango da haren egoitza.

Erantzun-salmoa (Sal 72 [71], 1-2. 7-8. 12-13. 17



- ℣. Ene Jainko, emaiogu zeure zuzentasuna **erre**geari,
zeure justizia erregearen **se**meari.
Goberna beza zure herria **just**iziaz,
zure dohakabeak **zu**zenbidez. ℟.
- ℣. Haren egunetan, lora bedi **just**izia,
ugaldu bakea, ilargia itzali arte.
Izan bedi nagusi itsasotik **itsa**soraino,
lurraren bazter batetik **best**eraino. ℟.

- ℣. Berak libratuko du oihuka ari den behartsua,
nork lagundurik ez duen dohakabea.
Cupida izango die gizagaixo eta behartsuei,
bizia salbatuko pobreei. ℟.
- ℣. Iraun beza haren izennak betiko,
zabal bedi haren ospea eguzkiak diraueino.
Bedeinkatuak izango dira harengan nazio guztiak,
zorionsu aitortuko dute bera. ℟.

Bigarren irakurgaia (Erm 15, 4-9)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Liburu Santuetan idatzia dagoen guztia gure ikasbiderako idatzi zuten, geure pazientziaz eta Liburu Santuek ematen diguten adoreaz itxaropen izan dezagun. Pazientziaren eta adorearen iturri den Jainkoak eman diezazuela elkarrekin iritzi bereko izatea, kristauei dagokien bezala, bihotz batez eta aho batez gora dezazuen Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Horrela, bada, egiozue elkarri harrera ona, Kristok zuei harrera ona egin dizuen bezala, Jainkoaren aintzarako. Hau diotsuet: Jesu Kristo juduen zerbitzari egin zen, arbasoei egindako agintzariak betetzen dituen Jainkoaren leialtasuna egiaztatzeko, eta jentilen zerbitzari ere egin zen. Honela baitio Liburu Santuak:

«Goretsiko zaitut nazioen artean, Jauna, kantuz ospatuko dut zure izena».

Aleluia (Lk 3, 4. 6)





✠. Prestatu bidea Jaunari,
 zuzendu bidexkak hari;
 ikusiko dute gizaki guztiek
 Jainkoaren salbamena. ✠.

Ebanjelioa (Mt 3, 1-12)

Homiliarako argibideak

0. Baiatzalea

- Datozen bi igandeetan Joan Bataiatzailearen ahotsa entzungo dugu. Bera izango da zeruetako erreinuaren hurbiltasunaren iragarlea.
- Bataiatzailearen aldarria garbia da: “bihotz-berri zaitezte”, aldatu jokabidea, barnetik has dadila aldaketa. Ez da, noski, azaleko kontua. Ez da pintura eta txapa kontua. Autoari azterketa teknikoa egiten zaion moduan soinua zerk ateratzen duen jakiteko, kurpilak egokitzeke, bihotzeko motorrari azterketa sakon bat egiteko gonbidapena dugu Abendualdia. Ziurrenik dena puntuan jartzeko denborarik ez dugu izango, asko izango direlako ziurrenik errepasatu beharreko piezak.
- Horregatik bihotz-berritu nahi badugu Joan Bataiatzailearen gonbidapena gure fedearen hastapenetara joatea izan daiteke, oinarrietara joan eta hasierako ibilbideko arrasto hura berreskuratu.
- Joanek ez zituen tresna handirik behar oinarritzko aldaketara jotzeko. Joan gamelu-larrazko jantzia zeraman, matxinsaltoak eta basaeztia zituen janari. Ez zuen gehiago behar. Jauna zetorrela

iragartzeko lehenbizi tokia egin behar zuen eta traban zegoena kentzeko salaketa egin.

1.- *Ura eta sua*

- Ura eta sua dira premiazkoak gure bataioaren, gure bokazioaren oinarrietara joateko. Bataioko uretan garbituak izan ginen, ez du gugan pekatuak agintzen, Jaunaren graziak baizik. Urak busti gintuen eta egungo poz eta negarretatik ez dugu alde egin nahi, murgilduta, horietan bustirik egon nahi dugulako.
- Baina, horretarako Goiko grazia, Espiritu Santuaren sua, txinparta behar dugu, nahi eta nahi ez. Bakarrik edo bakarka ez gara gai izango gizarte eta kristau elkarte honek behar duen su hori pizteko.
- Mesiasak, Gantzutuak ekarriko digu hain premiazkoa dugun bultzada hori, ura, sua eta haizea.
- Bataioko urek egin gaitu profeta etorriko den Jaunari tokia egiten hasteko, inguruan ditugun zuzengabekeriak salatzen, behar den tokian sua pizteko eta baretu eta freskatuko gaituen Berri Onaren ur berria eskaintzeko.

2. *Prestatu bidea Jaunari*

- Joan Bataiatzaileak Isaias profetaren hitzak hartu zituen bere ahotan basamortuko oihua gugana ekartzeko: “prestatu bidea Jaunari, zuzen bidexkak hari”.
- Urtero gabiltza bide berbera prestatzen eta norbaitek pentsa dezake aurreko urteak ez genuela behar bezala etxeko lanak egin. Beti dago zerbait zuzentzeko, okerra bideratzeko, bakeak egiteko tarte beti dator ongi, gaur bertan adiskidetzeko deia entzun dezakegu berriro. Beti zerbait egiteko.

- Hori da Jaunari bidea prestatzea. Fededun bakoitza da Jaunaren bideratzailea, kristau izateko bidea erakusten diguten katekisten antzera, kristau bakoitza da Jaunaren bidearen erakusle.
- Hori bai, erakutsi aurretik, geuri tokatzen zaigu erakusten duguna lehenbizi sakon eta barnetik bizitzea gure oihua faltsua izan ez dadin. Barnetik bizi nahi dugu oihukatzen duguna, zintzo eta apal, Jaunaren etorrera fundamentuz prestatu dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Atera gaitezen bakez datorkigun Jaunaren bidera eta egin diezaiogun otoitz:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



- Eliza poz handiz bizi dadin beti, eta itxaropen osoz sinets dezan Jauna gertu duela. Egigun otoitz. ✠.
- Egiazko bakez bizi gaitezen, errukiaren, barkamenaren eta adiskidetzearen bidetik. Egigun otoitz. ✠.
- Jaunak, Bere etorreraz, bihotz hautsiak sendo ditzan eta belaun makurtuak sendotu. Egigun otoitz. ✠.
- Jainkoaren promesak fede beroz sinets ditzagun eta Beraren laguntzaz hitz emandakoak onartzeko prest ager gaitezen. Egigun otoitz. ✠.

Maitasunean neurrigabea zaren Jainko Jauna, apalak Zure erreinuaren distiraz betetzen dituzu; entzun itzazu gure otoitzak, zuzendu gure bideak zugana eta beheratu gure harrokeriaren gailurrak, Zure Seme Jesu Kristoren etorrera fede sutsuz ospa dezagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Bigun zaitzatela, Jauna, gure otoitz eta eskaintza apal hauek, eta, geure aldetik merezimendurik ez dugunez gero, lagun diezagula zure errukiak dakigula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 1. (*Meza-liburua: 466. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Eukaristiako espiritu-janari honek aserik, otoitz egiten dizugu, Jauna: erakutsiezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi, lurreko gauzak zentzuz erabiltzen eta zeruko ondasunak maitatzen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 14. or.*)

Abenduaren 8an
MARIA BIRJINA DOHATSUAREN SORTZE GARBIA
Bilbao, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako Elizbarrutietan
Seminarioaren eguna

Agurra

Mariaren erraietan gizon egin zen Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Abendua Andre Mariaren hila da. Berari begira ikasten dugu Eguzki berria onartzeko bidea egiten.

Gaur gainera Seminarioaren eguna dugu, Jubileu urtearen baitan, goiburu honekin: «Itxaropen-ereileak». Gaur inoiz baino gehiago bokazioen alde jarduteko ahalegin berezia egin behar dugu, otoitzarekin eta testigantzarekin. Gure kristau elkarteetan, itxaropena ereingo duten apaiz bokaziodunak falta ez daitezen.

Ospa dezagun pozik Amaren jaia. Jainkoa goretsiz eta eskerrak emanaz. Horrek lagunduko digu Eguberria prestatzen.

Damu-otoitza

Senideok: Ospakizunaren hasieran gogora dezagun, Jainkoaren erruki eta salbamenaren beharrean aurkitzen garela. Eta Maria Birjina bekatutik garbi egin zuen Jainkoari, eska diezaiogun barka ditzala gure bekatuak.

—Jesus Jauna, zeure herria salbatzeko Maria Birjinagan gizon egin zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gizadiaren itxaropen guztiak betetzera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure Ama bekatutik garbi eta graziaz betea egin zenuena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *R̥*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
egoitza egokia prestatu zenion zeure Semeari
Maria Birjinaren Sortze Garbiaz
eta, honen Semearen heriotza aurreikusirik,
garbi gorde zenuen bekatu guztitik Ama;
egizu, Maria Birjinaren otoitzari esker,
gu ere Zugana garbi irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̥*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Mariaren Sortzez Garbia ospatzea, Ama Birjina Jainkoarekiko erabateko konfiantza eta prestasunaren eredutzat hartzea da. Bertan, Jainkoak salbaziorako bide perfektua prestatu du. Berak aurretik jartzen gaitu fedean eta gonbidatzen gaitu, Abendualdi garai honetan, Jaunaren etorrerari bihotza garbi eta itxaropenez irekitzera.

Lehenengo irakurgaia (*Has 3, 9-15. 20*)

Hasiera liburutik

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?» Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela?

Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?» Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?» Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut».

Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok».

Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Erantzun-salmoa (*Sal* 98 [97], 1. 2-3b. 3c-4)



Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

- ℣. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **eskuinak**,
bere beso **santuak**. ℟.

- ℣. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
bere salbamen-egintza agertu nazioen **aur**rean.
Ez da ahaztu bere mait**ta**sunaz,
Israel herriari dion leial**ta**sunaz. ℞.
- ℣. Munduko bazter guztiek ikusi**si** dute
gure Jainkoaren gara**ra**ipena.
Egin irrintzi Jaunari, lur **oso**a,
egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nua. ℞.

Bigarren irakurgaia (*Ef 1, 3-6. 11-12*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez.

Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaroten genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitezen.

Aleluia (Ik. Lk 1, 28. 42)

℣. Poztu zaitez, Maria, graziaz **bete** hori!
 Jauna zurekin,
 bedeinkatua zu emakume**en** artean. ℟.

Ebanjelioa (Lk 1, 26-38)**Homiliarako argibideak****0. Aingeruaren agurra**

- Aingeruaren agurra ezin daiteke ederragoa izan hitz horietan Jaunak guretzat nahi duena, desio duena adierazten duenean: “poztu zaitez, Jainkoak gogoko zaitu”.
- Nazareteko neskatxak jaso zuen agurra aupatu zuen eta suspertu zetorkion Mesias bere giza sabelean onartzeko, Jaunaren borondatea betetzeko.
- Euskaldunok agur hitz ongi etorria, nahiz adioa adierazteko erabiltzen dugu. Errespetuz betetako salbea da elkarri agur egiten diogunean, onena opa diot bizilagunari.
- Jainkoak gogoko izan zuen Maria eta Jaun berak gogoko gaitu. Ez da gu sortzeaz inoiz damutu, maite gaitu eta, inork ez bezala, ardi galdua izan arren, beti gure bila irtengo da. Jaun Onak aukeratu gaitu eta, Nazareteko Maria bezala, graziaz bete du gure bizitza. Kontua, hortxe koxka, grazia horrekin zer egiten dugun!

- Maria “graziaz betea” berea egin zuen Jaunaren gonbitea, ez zuen alboratu, bazterrean beste egun baterako utzi. Bere baietzak dena aldatu zuen, behetik gora, Jaungoikoak egin ohi duen moduan.

1. Berri Ona

- Aingeruaren agurrarekin Jaunaren promesa zetorren opari berean. Honek ez du Mariarengan halako beldurrik sortzen. Ondo asko dakigu Jaunaren asmoek gure planak zenbaitetan hankaz gora jartzen dituela, baina konfiantza da gure proiektuak Jaunaren eta salbamenaren bidean jartzen dituen.
- Jaunaren presentzia da beti da pozaren eta bakearen eramaile. Hortik aingeruaren hitzak: “ez beldur izan”.
- Berri Onaren ardatza ez dira aingeruaren hitzak bakarrik, hitz eta promesa horretatik Hitza, haragi egingo den Hitza etorriko baitzaio Mariari eta, bere onarpenari esker, guri. Itun Zaharreko fededunek hainbat urte luzez itxaron behar izan zutena egia, haragi bihurtu zen orain bi mila urte. Berri ona gure Erdian sortzen dena da.
- Kristauon fedea ospatzeko batzarraren Erdian Berri Ona, Ebanjelioa ez dira hitzak bakarrik, Jauna gure artean dagoela ospatzen dugunaren kontzientzia eta benetako presentzia da.

2. Misterioa

- Aingeruaren eta Mariaren arteko elkarriketa bizitza beraren misterioaren adibide argia da. Jaunaren sortzearen misterioa aingeruak agertzen dio, baina halako korapiloa ulertu eta barneratzeko jauzi bat egin behar da. Ez dago besterik!
- Jauzi hori fedearen eta Jaunagan bakarrik jarri daitekeen konfiantzaren jauzia da. Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean

Maria hartu zuen moduan, misteriora irekitzeko modu bakarra horixe da: Jaunak har gaitzala bere babespean, bere itzalean.

- Ez al da, ba, gure bizitza osoa jaiotzetik hasi eta heriotzaren mugaraino eramaten gaituen bidaia? Ez al da hesia urratzeko modurik ederra bestaldean Jauna izango dugula zain jakin eta sinestea baino?
- Jaunaren misterioak aingeruaren hitzetan seinale bat agertzen dio: Elisabet, Mariaren ahaidea, bere zaharrean haurdun dagoela. Guretzat posible ez dena, Jainkoarentzat ez da ezer ezinik. Eta hauxe da misterioaren giltzarria: gu ikusteko edota ulertzeko gai ez garena Jainkoarentzat ez da ezer ezinik. Jaunak bere modura egiten ditu gauzak.
- Gaurko ospakizunaren muina elkarriketaren azken esaldian laburbiltzen da. Atzera egin beharrean, hurrengorako utzi beharrean, Mariaren erantzuna tinkoa da: “Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekit zuk diozun bezala”.

Jainkoaren herriaren otoitza

Andre Mariarengan gizakien salbamena hasi zuen Jainkoari, eska diezaiogun Jaunaren bidera ateratzeko indarra eta laguntza:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Salbamenaren betea Mariarengan aurreikusi zuen Jaunak, lagun diezagula Elizako kide guztioi Kristoren Amaren edertasuna islatzen. Egigun otoitz. ✠.

- Andre Mariarengan Salbatzailea ernearazi zuen Espiritu Santuak berak mundua bete dezan eta gizaki guztiengan Jainkoaren Erreinuarekiko gogo beroa sorrarazi dezan. Egigun otoitz. *R̃*.
- Gure apaizgaiak jaso dezaten kristau-elkarteen harrera eta beroa eta Andre Mariaren antzera Jainkoaren aurrean lanerako prest agertuko diren apaiz bokaziodunak gure artean falta ez daitezen. Egigun otoitz. *R̃*.
- Andre Mariari begira, berak bezala Kristo onartzeko prestatu gaitzen eta Haren jaiotzako jaiak bihotzez ospa ditzagun. Egigun otoitz. *R̃*.

Jainko gure Jauna, Andre Mariaren sortze garbian salbamenaren egunsentiak argi egin dezan nahi izan duzu; entzun gure otoitzak eta egizu Elizaren ekintzaz eta testigantzaz gizaki guztiek ezagutu dezatela zugandik datorkigula salbamen betea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃*. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (Diru-bilketa egiterakoan)

Gaurko diru-bilketa gure Seminarioari laguntzeko izango da. Gure apaizgaiak ongi presta daitezen lagunduko dugu, baita bokazio pastoraltzak harrera ona egiten jarrai dezan ere.

Oparigaien gainerako otoitza

Onartu, Jauna, Maria Birjina dohatsuaren
Sortze Garbiaren festaburua ospatzean
eskaintzen dizugun opari salbagarria;
eta hura, aurretiaz hartutako zure graziari esker,
erru guztitik libre izan zela aitortzen dugun bezala,
libra gaitzazu gu ere, haren otoitzaren laguntzaz,
bekatu guztietatik.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃*. Amen.

Prefazioa: Sortzez Garbiarena *(Meza-liburua: 917. or.)***Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko gure Jauna, Maria Birjinaren sortzea
jatorrizko bekatutik garbi gorde zenuen miragarriro;
hartu dugun sakramentu honek senda ditzala gudan
bekatu horren zauriak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *Rx.* Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Maria Birjina dohatsuagandik jaiotakoaren bitartez
gizadia bihotz onez salbatu duen Jainkoak
eman diezazuela oparo bere bedeinkapena. *Rx.* Amen.

Bizi-iturria eman dizuen Mariaren laguntza
izan dezazuela nonahi eta beti. *Rx.* Amen.

Eta Mariaren jaia santuki ospatzera etorri zaretenoi
eman diezazuela Jainkoak

Espirituaren poza eta zeruko sariaren dohaina. *Rx.* Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *Rx.* Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *Rx.* Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 14an
ABENDUALDIKO III. IGANDEA (A)

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaur Abenduko hirugarren igandea da, eta Jaunaren gertutasunaren aurrean poza da nagusi liturgian. Poztasun horrek ez da geratu behar azalean, baizik eta Kristok dakarkigun salbamenak gure bihotzetatik sortu behar du; gure bihotzek behar dutelako. [Abenduko gure koroan pizten dugun hirugarren kandela Jaunak bere etorrerarekin gure bizitzetara ekartzen duen argiaren adierazgarri da].

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: Jaunaren etorreraren gertutasuna haren errukia gozatzeko aukera da. Eska diezaiogun apaltasunez gure bekatuen barkamena.

—Jesus Jauna, zure herriari bakea ekartzera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, galdurik zegoena salbatzera **etorri** zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua berri egitera **etorri** zinena: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Otoitza

Oi Jainko, ikusten duzu zeure herria,
Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten;
egizu, arren,
irits gaitezela salbamen miragarriaren zorionera
eta gorapen eta pozik handienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Igande honek gogorarazten digu kristau poza Jaungoikoak gudan ari den ziurtasunetik sortzen dela, nahiz eta ez beti espero dugun bezala aritu. Egunerokotasunean bere presentzia bizi eta salbatzailea aitortzera gonbidatuak gara, zain tinko mantentzera, eta bihotza pozez prestatzera, Jauna gure bizitzak eta mundua eraldatzera baitator.

Lehenengo irakurgaia (Is 35, 1-6a. 10)

Isaias Profetaren liburutik

Poztu bitez basamortua eta lur elkorra, alai bedi eremua, eta lilia bezala loratu, jantz bedi lorez eta egin beza irrintzi eta jauzi pozaren pozez. Libano bezain zoragarri eta Karmel mendia eta Xaron lautada bezain eder bihurtuko da. Denek ikusiko dute Jaunaren aintza, gure Jainkoaren edertasuna.

Indar itzazue esku ahulduak, sendotu belaun makalduak; esan bihotz-beldurtiei: «Eutsi gogor! Ez beldur izan! Horra zuen Jainkoa! Berbera dator zuek salbatzera eta merezia duten zigorra etsaiei ematera».

Orduan, itsuen begiak irekiko dira eta gorren belarriak zabalduko; herrenak basahuntzak bezala jauzi egingo du eta mutuaren mingainak oihu egingo pozez.

Jaunak askatuak pozez kantari etorriko dira Sionera: amaigabeko alaitasuna haien aurpegian!

Poza eta alaitasuna izango dituzte lagun. Nahigabeak eta negarrak ihes egingo dute.

Erantzun-salmoa (Sal 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)

Sal - ba - tzai - le - a, za - toz len - bait - len! Zu -

re zai, Jau - na, gau - de gu he - men.

- ℣. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.
Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,
gose direnei ogia ematen die.
Jaunak askatzen ditu presoak. ℟.
- ℣. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,
Jaunak altxatzen konkortuak,
Jaunak maitatzen zintzoak,
Jaunak ditu etorkinak zaintzen. ℟.
- ℣. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,
baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.
Jauna errege da betieran,
zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! ℟.

Bigarren irakurgaia (St 5, 7-10)

Santiago Apostoluaren gutunetik

Senideok: Izan ezazue pazientzia Jaunaren etorrera arte. Begira nekazariari: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta pazientziaz itxaroten ditu garaiz datorren euria eta berandu datorrena. Izan pazientzia zuek ere eta egon sendo, laster etorriko baita Jauna.

Senideok, ez ibili bata bestearen aurka marmarka, kondenatu ez zaitzaten; begira, epailea ate-atean da. Senideok, har itzazue sufrimenduaren eta pazientziaren eredutzat Jaunaren izenean hitz egin zuten profetak.

Aleluia (Is 61, 1 [ik. Lk 4, 18an aipatua])



℣. Jaunaren Espiritua nire gainean dago,
behartsuei Berri Ona ematera bidali nau. ℟.

Ebanjelioa (Mt 11, 2-11)

Homiliarako argibideak

0. Besteren baten zain egon behar dugu?

- Irakurgai aurreko otoitzak gogorarazi digu “Jaunaren jaiotzako jaia zintzo itxaroten” gaudela. Gutxiago falta da etorriko denari ongi etorria emateko, egunero oroitzen eta ospatzen dugu Jauna gure artean dagoela, baina zain egoteak gure bihotza eta bizitza prest jartzen duela etorrera fundamentuz prestatzeko.

- Gaurko ebanjelioaren estanpak nolabait misioaren txanda irudikatzen digu modu krudel batean: Joan Bataiatzailea kartzelatua izan da eta ziega krudel horretatik galdetzen die bere ikasleei berak hasitako bideak jarraipenik izango ote duen. Joan Bataiatzaileak injustiziak salatu ditu eta horregatik espetxeratu dute. Bataiatzaileak etorri denari bidea ireki dio profetei dagokien moduan.
- Hasitakoak ez du izango etenik izango. Bi mila urte ondoren hemen bagaude, hasitakoak jarraipena duelako da, gure batzarraren izatea Jauna delako.
- Belengo estalpean jaio zenak adieraziko digu ez dugula besteren baten zain egoteko arrazoirik, Belengo haurtxoak gure esperantza beteko duela.

1.- EZAUGARRI ASKATZAILEAK

- Bataiatzailearen ardura ulertzekoa izan zitekeen hasitako amets hura bertan behera geratuko zen beldurrez. Zenbat egintza geratu zaizkigu bide erdian jarraipenik gabe?
- Baina, ez! Jesusen erantzuna ez da teorikoa, ez asmoa, ez da gogoia bakarrik: “Zoazte eta esan Joani entzuten eta ikusten duzuen” -esango du tinko.
- Eta haxe da azken bi mila urteko jarraipenaren ildoak: Jaunaren eskutik atzematen ditugun ezaugarri askatzaileak: “itsuek ikusten duela, herrenak badabiltzala, legenardunak garbi gelditzen direla, gorrek entzuten dutela, hila pizten direla eta behartsuei Berri Ona hots egiten zaiela”.
- Jesusek iragarritakoa egungo kristauontzat, Kristoren jarraitzaileontzat bizitza osorako programa dugu, amaierarik gabeko ibilbide askatzailea.
- Fededunak, lehen eta orain, Jesusen ezaugarri askatzaile horien lekuko, suspertzaile eta eragile izan behar du. Ezin du

dagoenarekin konformatu, aldaketa bideratu behar du, okerrak zuzendu, gaixoak sendatu, injustiziak salatu, behartsuei irtenbideak erakutsi. Guzti hori da Berri Ona hots egitea. Ez da, beraz, hitz kontua bakarrik. Esan eta egin, hots egin eta ekin.

2. Profetak behar dira

- Jesusen asmoak iraun dezan bere grazia behar dugu, bataioko uretik jaso genuen profeta izateko deia. Han eta hemen, lehen eta orain, fedearen kateak iraun du Jesusen Berri Onaren iragarleak gure inguruan izan ditugulako. Katea ezin da eten, Jaunaren graziak iraun behar du gure artean.
- Itsu, herren, legenardun edo gorrek izan dituzte medikuak sendatzeko eta laguntzeko. Baina, bihotza arakatuko duten Jesusen lekukoak behar ditugu, orduko mirariak errepika daitezen, Ebanjelioaren bide askatzaileak aurrera jarrai dezan.
- Bai, profetak behar dira gure artean, gizartean, nahiz elkarteetan. Injustiziak dauden tokian ahotsa altxa dadin pobreen alde, gure etorkizuna Jaunaren eskuetan jartzen erakusteko, bide berriak urratzen jarraitzeko, elkartearen itxaropena eusteko, bihotz-berritzeko premia astintzen jarraitzeko.
- Bi mila urte igaro dira, Jauna guregana dator. Isaias profetak zioen bezala: “Esan bihotz-beldurtiei: Eutsi gogor! Ez beldur izan! Badator gure Jainkoa, gu salbatzera!”

Jainkoaren herriaren otoitza

Jauna badatorrela jakiteak poztuta, egin dezagun otoitz senideok, gure askatasuna uste onez itxaro dugula

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



- Mundu honetako indarrekin liluratu gabe, Eliza bizi dadila beti Jainkoaren gidaritzapean. Egigun otoitz. *R.*
- Jainkoaren laguntzaz eta denon ahaleginez, gure garaiak bakezko eta zorionezko egun izan daitezen. Egigun otoitz. *R.*
- Jaunaren etorrerak denon bihotzak mugi ditzan, gaixoen osasuna, bakarrik daudenen laguntasuna eta sufritzen duten guztien atsedena bila ditzagun. Egigun otoitz. *R.*
- Orain Jaunaren lehen etorrera eta gizon egitea zintzo ospatzen dugunok, azken egunean datorrenean ere pozik onar dezagun. Egigun otoitz. *R.*

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun horrek eta berri gaitzazu Zure Espiritu Santuaren suaz; egizu, Zure aginduei jarraituz gizaki guztiei hots egin diezaiegula Zure Semearen etorreraren berri pozgarria. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Atsegin bekizu, Jauna,
gure buruaren eskaintza adierazten duen opari hau,
eta bete ezazu gugan, sakramentu honen bidez,
zeure salbamen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R.* Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 2. (*Meza-liburua: 468. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure jokaera txarretatik,
eta datozkigun Eguberri-jaietarako prestatu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 14. or.*)

Abenduaren 21ean
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (A)
Caritasen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Gaur, gure Salbatzailearen jaiotza-jaia gertu dugula, otoitz bihurtzen da gure itxaropena eta Isaías profetaren hitzekin esan dezakegu: «Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala, isuri, hodeiok, garaipena euria bezala! Ireki bedi lurra eta eman beza Salbatzailea!» [Mariak eta Josek itxaron zuten bezala itxaron behar dugula oroitarazten digu Eguberriak: gogo horrekin pizten dugu Abendualdiko laugarren argia].

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 4-5 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

- Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen **munduko** argia: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera za**to**zen Artzain Ona: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, aitaren agintzariak bernen betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jain**ko**aren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Otoitza

Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia,
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
haren nekaldiaren eta gurutzearen bidez,
irits gaitezela piztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena


Abendualdiko azken igande honetan, bihotza Joseren fede isilarekin eta Mariaren konfiantzarekin prestatzera gonbidatuak gara. Jainkoa gure artean bizitzera dator: Zabalduko al diogu atea?

Lehenengo irakurgaia (*Is* 7, 10-14)

Isaias Profetaren liburutik

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean».

Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al derizkiozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdun dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena».

Erantzun-salmoa (*Sal* 24 [23], 1-2. 3-4b. 5-6)

- ✠. Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen **du**ena,
mundua eta bertan bizi **di**renak,
hark ezarri baitu itsasoen **gai**nean,
hark finkatu lur azpiko ibaien **gai**nean. ✠.
- ✠. Jaunaren mendira nor **ig**oko?
Haren toki santuan nor **eg**ongo?
Eskuak errugabe eta bihotza garbi di**tu**ena,
sasijainkoetara jotzen ez **du**ena. ✠.
- ✠. Horrelakoa bedeinkatuko **du** Jaunak,
justizia egingo dio Jainko salbat**zai**leak.
Hau da haren bila saiatzen den gi**zal**dia,
Jakoben Jainkoaren aurpegi bila da**bi**lena. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Erm* 1, 1-7)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Ni, Paulo, Jesu Kristoren zerbitzaria, Jainkoak deitu eta bereizi ninduen apostolu izateko eta Liburu Santuetan profeten ahoz aurrez agindua zuen bere Berri Ona hots egiteko. Berri On hau Jainkoaren Semeari buruz da, Jesu Kristo gure Jaunari buruz, alegia: hau giza jatorriz Daviden hazitik jaio zen; baina hilen artetik piztu denez gero, santu egiten duen Espirituak Jainkoaren Seme ahaltsu egin du.

Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, beraren izenean jentil-herriei sinesmena eramateko eta haiengan fedezko erantzuna sortzeko, Jesu Kristo beraren aintzarako. Haietakoak zarete zuek ere, Erroman bizi zareten guztiok, Jainkoaren maiteok eta Jesu Kristok bere herri santuko izatera deituok. Grazia eta bakea zuei, Jainko gure Aitagandik eta Jesu Kristo gure Jaunagandik.

Aleluia (Mt 1, 23)



℣. Begira, birjinak sabeleanan sortu
eta semea izango du,
eta Emmanuel ipiniko diotete izena,
«Jainkoa gurekin». ℟.

Ebanjelioa (Mt 1, 18-24)

Homiliarako argibideak

0. Badator

- Ia itxaron ezinik gaurko liturgiak Abenduaren 24ko gau ilun eta zoragarri hartan gertatu zena kontatu nahi digu. Abendualdiko 4. igande honetako irakurgaiek aurreko asteotan prestatzen joan garen festa modu progresiboan kontatzen digu.
- Ez da alferrikako izango gure itxaronaldia, merezi izango du, denboraldi honen ondoren Jauna guregana badator berriro. Badator lurrak eta zeruak egin zituen, badator mundua eta bertan bizi garenok erabateko bisita egitea.

- Badator Jaunaren mendira igotzen hasi ginenean guregana jaitsi dena. Gozo-gozo 24. salmoak iragarri du Salbatzailearen etorrera.
- Zein ederrak gertatzen diren espero dugun etxekoaren bisita aurreko egunak etorriko dena maitasunez hartzen dugunean!
- Isaias profetak Akaz erregeari eskaini zion mezuak begiak ireki zizkion etorriko zen ezaugarriaren zain. 700 urte itxaron behar izango zuen Emmanuel etorri arte, baina esperantza horrek Daviden etxea eutsi zuen, promesa horrek herri hura denboran eta ezbeharretan eutsi zuen.

1. Ezaugarria emango zaigu

- Eta ezaugarria iritsi zen Jaun Goikoak gauzak egiten dituen bere moduan. Errespetuz, kanpotarra balitz bezala ate joka, gure etxera, Berea den etxe honetara sartzeko baimena eskatuz.
- Eta hortxe, askatasuna nagusia den toki horretan, maitasunak agintzen duen gune eta une horrentantxe, Jauna etorriko da guregana. Ezaugarria: haurdun dagoen birjinak semea izango du.
- Jaunaren ezaugarriak txikiei eta historiako biktimei keinu egiten die, lehen urratsetik Jaun berak jakingo du zer den larre motxean mundu honetako historia hastea. Gu bezala, pobreekin bat eginez.
- Ezaugarri horretan ikusten dugu, sinesten dugu, ikasi behar genuke Jaunaren garaietako zeinuak gizateriaren historian nola zehazten diren. Hortxe, gizarteko existentziaren periferia horietan jaiko da Jesu Kristo gure Jauna.

2.- HONELA GERTATU ZEN

- Gure sorreraren kontaketa balitza bezala kontatzen digu Mateo ebanjelariak Jesu Kristoren sortzen nola gertatu zen: Maria eta

Joseren maitasunaren proiektuak Espiritu Santuak sortarazten du salbamenaren txinparta, ustekabeen.

- Mariak eman zuen bere baietza, Josek beldurrik gabe aurrera jarraitzeko abisua jasotzean ametsetan, jaiki eta Maria etxean hartzen du. Eta, honekin batera, salbamenaren Jauna.
- Ametsa egia bihurtzen du esnatzean Jaunaren aingeruak azaldutakoa. Hori da balorea, ez da zenbaitetan agertu ziguten Jose inozoa! Hori da aitaordekoa, hori da salbamenari bidea egitea, hori da Jaunaren borondateari bidexka erraztea!
- Eta historia honek ez du korapilo handiagorik, txikien eta pobreen ateak irekitzen direnean gertatzen mirari isila baino handiagorik. Honela gertatu zen, edozein etxetan gertatu zitekeen modura. Jainko Onak oraindik ere gure etxean ate joka jarraitzen duela jabetzen garen arte.
- Josek, lotatik esnatzean, Jaunaren aingeruak agindutakoa egin zuen. Guk oraindik lo jarraitzen ote dugu?

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamina ekar diezagun:

Erantzuna: ✠. **Zatoz, Jauna, gu salbatzera!**



—Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. ✠.

- Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik.
- Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. *R̃*.
- Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. *R̃*.

Jainko gure Jauna, Maria, Israelgo alaba apala, aukeratu zenuen gure artean betiko geratzeko bide; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure nahia onartuz bizitzea, promesa guztiak betetzera mundura etorri zen Zure Semea bezala esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̃*. Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Maria dohatsuaren sabel garbia
bere indarrez santu egin zuen Espirituak sagara ditzala
zure aldarera ekarri ditugun eskaintzak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃*. Amen.

Prefazioa: Abendualdiko 4. (*Meza-liburua: 471. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia,
presta gaitezela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 14. or.*)

